

***Begiradak. Miradas y memorias desde el margen/
Glances and memories from the fringes***
Gipuzkoako Foru Aldundia; Periferike
Donostia, 2005

Gertuago doan begirada

Begirada da guganaino iristen aurrena, hitza bera baino lehenago da begirada. Haurrak begiratu egiten du eta ikusi egiten du hitz egiten ikasi aurretik. Begiradak gure tokia zehazten du inguratzen gaituen munduan, gero hitzekin mundu hori adierazten dugu. Dakigun hori guztiak edota uste dugun hori guztiak eragina du gauzak ikusteko gure moduan. Begiratzen dugun hori baino ez dugu ikusten, eta zerbait horri hitzak jartzeak harekin harremanean jartzen gaitu, hitza ekintza etengabea dirauen begirada baita, mugimendu etengabea, bera den hori eta gu garena etengabe ikasten.

“Periferiak” kultur ekintza taldearen eta Koldo Mitxelena kulturunearen elkar lankidetzaz kaleratu berriak diren *Begiradak* liburuak eta bere barnean hartzen duen *Gezurren labirintoa* DVDerako dokumentalak azken bi urteko tartean “Periferiak” Italiako Livornon eta Bilbon bultzatu dituen ekintzak biltzen dituzte. Europar egoera intelektualeko begiradarik argienetakoak, ziztatzailenetakoak eta inkonformistenetakoak, hala nola, Gianni Celati, John Berger, Bernardo Atxaga, Joaquín Jordá, José Luis Guerín, Lydie Salvayre, Alessandro Dal Lago, María Muñoz, Paolo Virno, Marina Garcés, Yann Moulier Boutang edo Emmanuel Renault egileenak, besteak beste. Kontzientzia asebeten eta gure hirikideen joera moldaerazten aurkako begirada ezinbestekoak. Ate bat bultzatu eta begiratua ematea bezala, pasabidearen amaieran.

Merkatuaren estalperik gabeko kaleetako batean barrena hitzaldiak, Ixiar Rozasek egin elkarrizketak, Dario Malventik eta Álvaro Rodríguez zuzendu mahai inguruak, Peppe Maistoren argazkiak edo Concetta Probanzaren marrazkiak, besteak beste, jaso ditzake gure begiradak hemen. Memoriaren eta giza jarreraren gatazkari buruzko begiradak denak, beldurraren egungo politika eta botere guneak zalantzan jartzen dituzten begiradak, kulturaren zeregina berri nahi dutenak, eta hirien eta hiritarren izaera krisia aztertzen dutenak ere bai. Ate bat bultzatzen duen begirada, pasabidearen amaieran.

Pentsamenduaren zurtasun horretan guztian, *Begiradak* liburuko eguzkiaren suak gure begiak jotzen ditu, baina argitasunez blai, eta harekin topo egiten du, itxurarik gabe, gure begiradak, begiak argiz beterik ditugula. *Gezurren labirintoa* dokumentalean agertzen den Livornoko zeruak hitzen eguzki sartze ederrari begira hartzen du atsegin, arratsean. Eta ahotsak, iritziak, alferrik galtzen ez diren hitz txikiak azken errainuak bezala entzuten ditugu, hizketan ari zaizkigula guri, haur batek bezain garbi. Adoretsua da lanaren eginahala, barazkiei kalterik ez dakarkien euri ekaitz saioa bezalatsu liburu nahiz dokumentaleko mamiaren korronea, iturburu lur azpian duen kantu baten modura ateratzen den mezua. Mundu oso baten begirada bazter guztietara urtzen.

Begirada da hitza baino lehenago. Haurrak begiratu egiten du eta ikusi egiten du hitz egiten ikasi aurretik. Begirada da gure tokia zehazten duena inguratzen gaituen munduan, gero hitzekin adierazten dugu mundu hori. Politika erabat berria bezala, begirada mundutar bat. Begirada posibleak.

José Luis Padrón